



AKELARRE - N. Basterretxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA bertan

2000ko URRIA 26.zbk.  
125 pzta.


Lege Gordailua: BI-85-98

**BEGOÑAKO ERROMERIA**

**OTXARKOAGA  
DUINTZEKO TRESNA**  
Famili Elkarteak  
Hogetamar Urte  
Bete Ditu Jardunean


**SOLOKOETXEKO AUZOEK  
PARKEA LORTU DUTE**

**MIKOLETA LEHIAKETAN  
MAHATSORRIAK NAGUSI**



**Janire Salvador**

**«Jende askoren aurrean kitarra jotzea da gehien gustatzen zaidana»**



## BEGOÑAKO TRANBIA

("Unzalu Estudio" k emondako argazkia)

**Ikusten dogun argazkia 1950 ingurukoa da eta bertan Begoñako tranbia ikusten da, gaur egun Amadeo Deprit eta Begoñako Andra Mari kaleak gurutzaten diran lekuan gitxi gora behera.**

**Eskoi aldean Urtiaga etxearen zatia ikusten da eta atzean gaur egun oindino dagoen Begoñako kanposantuko harresia, alde horretako mendia, gaur egungo Arabella etxaldea dagoen lekua da.. Ezker aldean barriz "Cruzeberde" eta "Polborin" izenakaz ezetutako etxeak eta atzeko mendia Artxanda da.**

**Begoña-Miserikordia, korritzen eban 11 zenbakiko tranbia honek ibilbide hau eginez: Begoña, Prim, Zamudio atea, Bidebarrieta, Hareatza, Gran Bia eta Jesusen Bihotza.**

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur Elkarte

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55. 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA**  
Hektor Ortega

**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Joana Martínez,  
Joana Etxebarria,  
Irene Berro,  
Iratxe Ruiz,  
Leire Altamira,  
Erdoitza Martínez  
Unai Cuevas

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona eta  
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKE-  
TASIOA:**  
Iñaki Berastegi,


**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia,  
Itxaso Perez,  
Alberto Ugarte,  
Iñaki Gaminde,  
Igor M. de Vidales,  
Santutxuko Bertso  
Eskola,  
Igor Zorrozueta,  
Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoe-  
txea, Joxe Garcia

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.000



▶ Betikoak .....	2	▶ Inkesta .....	19
▶ Iritzia .....	4	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Pragatik Miarritzera .....	5	▶ Hezkuntza .....	24
▶ Begoña eta Euskerea .....	8	▶ Mendi Ibilbidea .....	27
▶ Begoñako Erromeria .....	10	▶ Kultura: Sabin Eiguren.....	28
▶ Bakarka: Janire Salvador .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30

Musikari jatozkuz Bertonekoak oingo hilien. Neskato gitarriestie portadan, Ama Birjinaren koplak-edo, Begoñeko erromeridxe, jantzaridxe....

Negue hasteko bere pozik dabiltzez honeik. Neu bere kantari ibiltzen naz sarri, baie kantetan Tetuaneko puntera joan biher ixeten dot, ze hain txarto egitten dotelez, behidkek bere espanteu egitten direz. Ta erromeridxetan-eta eskerrak betik ibiltzen ixen nazela baten bategaz parraplan ta barriketan ta ez jatala akordau bere egitten kantetie, ze ezpabere, adios erromeridxe, Ama Birjinek bere eskapeu egingo leuke neuri entzunte.

Baie politte da oin, neguen ganiien dekogule musikiegaz akordatie, neguen bere kantari ibili bier da -ta. Ze gure dozue ba? Kantu ta jantza guztidxe uden egin ta gero, neguen idi leloen modure, betik arpegikera bar-

dinegaz ibili, ziku ta mutu, Asko ibiliten direzen modure? Ez ba, alegrantzie urte guztidxen eukin bide, karajo! Ta parada txarrak datozenien bere alegrantzia apurtxu bet euki bide. Ze hau biximodue zelan eroan lei bestelan?

Beitu! Neu bere, Tetuaneko puntera kantetan idxoten dotenien, pentsetan dot han ingeruen inok bere ez dostela entzuten. Ta kantetan dot dekoten inddar guztidxegaz. Ta, karajo! bakarrik kantetan dot ta txarto, ta inok ez doste entzuten (edo sikieran ez yataz kejau). Baie, holango kantu betzuk botata etorten jatezan poztasune ta alegrantzidxe ez direz diruegaz pagetan. Ta nire publikoak pentsetan dau munduko onena nazela. Ta bajetan nazenien konturatuten naz zelango herri kantaridxe ta alaidxe garezzen euskaldunok. Laster baten diskoa grabau bidot karajo!

## GAIA JARRITA: ZELAN HASI DIRA IKASTURTEA GURE INGURUKO EUSKALTEGIAK?

### ISTORIXE ETA EZ HISTORIXA

Ez da erraza gure lankide izandako batek jarri doskun lana. Halaxe esan euskun, idatz eizue iritzi artikulua bat. Gaxe: Santutxuko AEK-k auzoan izan eta dekon eragina. Santutxuko AEK-k urteak daroaz euskalgintzan murgildute. Gaur egun auzoan dauzen euskaldun asko eta asko hemendik pasatu izan direz. Egund, haien hizkuntza euskara da, AEKren helburua euskaldun aktiboak sortzea baita. Hari beretik jarraituz, esan geinke milaka lagun pasatu dize-la hemendik euskerea ezagutzera edo bere ezagutza handitzeko asmotan. Batzuek gura izan deurielako eta besteek beharrak berak eskatu deusi elako. Halan da be, aurreko helburu hori betetzen ari zirela beste Santutxu bat deskubritu deurie, hots, euskerea eta euskal kulturen inguruan dauana. Ikasle mota ezberdinak izanik eragina be ezberdina izan da, tokixan tokikoa, baye bai aittatu beharra dau hona etorri izan direzen artean, hasieran eta bukaeran deukien motibaziñue eta jarrera dexente aldatzen dala. Hizkuntzari berari beste ikuspuntu batetik begiratzen dotsie. Ez lanpostu bat lortzeko soilik, baizik eta beste zeozertarako be. Eguneroko bizitzan erabilgarrixe eta baliagarrixe dala ikusten deurie. Urte askotan burututako lanak jarraipena deuko gaur egun be. Are geixagoa, azken boladan indarberrituta eta ideia barrixekin gabiz. Hau esanda, eta Berton aldizkarixak eskeintzen doskun aukera aprobetxatuz, Santutxuko auzoari gogoratu gura deusogu 35 urte betetzear dauen euskaltegixak bere atea parez pare zabalik deukoze la bertara urreratu gura dauen edonorentzat

Laster arte.  
Santutxuko AEK.

### TROKA KULTUR TALDEA

Santutxu Troka Euskaltegiak 1984. Urtean sortu zen Alberto Beaskoetxearen gidaritzapean Santutxuko Uztarri izena zuelarik. Auzoak garai horretan haurrentzako euskaltegirik ez zuela ikusita Beaskoetxeak euskaltegiak euskaltegia sortzeari ekin zion. Hasieran, borondatez lan egiten zuten hiru irakasle- leen laguntzaz eta Santutxuko Batzokiak utzitako lokalei esker proiektu hau lehenengo pausuak ematen hasi zen. Denbora aurrera joan ahala auzoaren eta euskaltegiaren beharrak handituz joan ziren eta profesionalizazioaren bidea hartu zuen. Lehenengo momentu batean 7-16 urte bitarteko haurrei zuzendutako euskaltegia eratu zen. Euskaltegiak momentu horretan eskolak emateaz gain ibilaldiak eta txangoak antolatzen zituen, horrela umeak euskaraz mintzatu ahal ziren euskaltegitik kanpo. Horrela 90. hamarkadan behar hauek handituz joan ziren: Lehenengo haurrak gazte bihurtu ziren, gero gurasoek haien umeak lagundu nahi zituzten eta azkenik, auzoko bizi- lagunak euskaltegiaren atera deitu zuten. Eta orduan Troka Euskaltegia sortu zen. HABEk homologatua eta Santutxu eta Txurdinagako ume, gazte eta helduek hornitua. Hiru talderekin hasi zen euskaltegiak gaur egun 40 ditu eta aurrera jarraituko du EUSKARAREN zabalkuntzaren alde.

Troka Euskaltegia.  
TROKA KULTUR TALDEA  
Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue, z/g  
48004 BILBAO - 94 433 92 62

Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

## hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
Abizenak: .....  
Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
Telefonoa: .....  
Bankua: .....  
Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_

Sinadura

# Pragatik Miarritzera



**Eguraldia zakarra izan arren ehundaka gazteren ahotsak entzun ziren urriaren 12tik 14ra bitartean B.iona eta inguruko herrietako karrketan**

Testua eta argazkiak: Iruñe Berro Urrizelki

Dena prest zegoen Miarritzen Europa osoko estatuburuak egingo zuten gailurrerako. Europar Batasuneko Lehendakaria Frantsesak iragarri zuen bezala, 60 milioi franko (1.500 milioi pezeta edo 9 milioi euro) zeuden jarriak protokolo kontua baino ez zen ebentó hartan.

Bitartean eta 60 milioi franko xahutu gabe, Haika gazte erakundeak (eta ez Jaika hedabide espainolek behin eta berriro esan duten bezala) antolaturiko mobilizazio ekitaldietara abiatu ginen Mahatserriko hainbat gazte.

Asteazken gauz nahiago izan genuen joan, izan ere hurrengo egunerako jada egon beharko ez lukeen mugan Guardia Zibilak eta CRS-ak ezarritako kontrol zorrotzak iragarrita baitzeuden. Horrela Mahatserriko bost auto hartu genuen Miarritzerako norabidea, hiru auto Santutxutik eta gainontzeko biak Uribarritik. Baina ez ginen bakarrak izan, ostegunear ere furgoneta bat atera zelako auzotik.

Mugara iritsi eta Santutxuko autoek ez genuen

arazo handirik izan hau zeharkatzeko baina erdi kokildurik autoko leihatilatik begiratu eta hantxe ikusi genuen Uribarriko autoetako bat geldí. Maleteroa goitik behera hustu zieten eta motxila guztiak miatu.

Azkenik iritsi ginen Baionara!! Oso nekaturik baina pozik ez genuelako uste muga hain "errez" igaroko genuenik. Egunsentian eguzkia atera eta Mousserolleseko harresietan ehundaka gaztek dendak ipini genituen. Zapi gorria eta ikurriñak ziren bertakoon bereizgarria, beraz, huraxe jantzi eta baginen prest Miarritzen bilduko zirenei gure ahotsa entzunarazteko. Euskal Herri aske eta independente bat aldarrikatzeko.

Bitartean Frantziako agintariak zenbait euskal hedabideetako kazetariak baimenak ukatu zizkieten. Arrazoi zehatzik gabe ETB, Euskaldunon Egunkaria, Gure Irratia eta Euskadi Irratiaren kasuan. Gara egunkariari berriz, eskaera tramitean akatsak egon izana argudiatu zioten. Aipatutako euskal hedabide hauen



Goian: Manifestazioa Baionetik Miarritzerako bidean  
Ezkerrean: Autoak "muga" zaharkatzen (EUSKALDUNON EGUNKARIA )

ekitaldia, bertan hainbat iraultzaile eta kazetari elkartu ginelarik. Mundu osotik etorritako kazetariak alegia, BBCtik hasita gu geu ere, BERTON.

Hantxe, Ives Machicottek Haika gazte erakundeko kideak denoi ongietorria eman ezezik herrien Europa aldarrikatu zuen ere, zeinetan hauek beren etorkizuna definitzeko aukera izango duten. Bestalde Jabi Barandiaranek Hemen eta Munduan plataformaren izenean egun horietan Lapurdin eta aste batzuk lehentxeago Pragan izandako mobiliza-

zioak uztartu zituen. Bere esanetan bi gailur hauek globalizazio bakarraren bi aurpegiak dira eta denon artean gogor egin behar genuela borroka gogorazi zigun.

Modu honetan hasten zen beraz, zelan bukatuko zen inork ez zekien Europako gailurraren kontrako mobilizazioa.

Manifestazioak eta kontzentrazioak ugariak izan ziren egun horietan baita euskal gazteen eta CRS-en arteko istiluak ere. Agian istilurik gogorrenak lehen-dabizikoak izan ziren, izan ere CRS-ek oztopatu zutena, Baionatik Miarrizera zihoan manifestazio erraldoia izan baitzen. Angelura iristean bai manifes-

ustez, Frantziako agintarien jarrerak Miarritzen aztertua izango zen Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna urratzen zuen erabat, honen baitan dagoen 11 artikulua ondorengoa baitio: *"Toda persona tiene derecho a la libertad de expresión. Este derecho comprende la libertad de opinión y la libertad de recibir o de comunicar informaciones o ideas sin que pueda haber inferencia de autoridades públicas y sin consideración de fronteras"*

... *"Se respetan la libertad de los medios de comunicación y su pluralismo"*.

Arratsaldeko bostetan eta euripean izan zen Miarrizteko gailurraren kontrako mobilizazioen hasiera



Goian: Presoen aldeko manifestariak Miarrizteko errotonda batean.  
Eskumaldean: Istiluak hasi ziren unea (GARA)

tazioak bai CRSez osatutako ilara luzea bezain lodiak topo egin zuten aurrez aurre. Momentu hartan futbol partiduetan izaten diren sirena horietako baten hotsa entzun eta asko izan ziren CRSi harriak jaurti zizkieten manifestariak, hauek gas lakrimogenoa erabili zutelaren beren aldarrikapenak Miarrizten bildutakoei adierazi baino nahi ez zutenen aurka.

Pixkanaka istiluak Lapurdiko hiriburuko auzoa den Baiona Ttipira igaro ziren, auzo honen sarbide diren zubiak okupatu baitzuten poliziak. Orduan harek Palestina zirudien. Asko zen gas lakrimogenoak eraginda negar baten zegoen jendea. Azalean izugarritzko hazkura eragiteaz gain eta eztarria, ahoa eta mingaina erabat izorratzeaz gain begiak kiskaltzen baititu.

Honenbestez helikopteroa buru gainera eroriko zitzaigula ematen zuen. Egia esan jada ohituak geunden goizaldetik iluntzeraino gu filmatzen ari zen kamara zuen helikopteroa gure buru gainean izaten baina oraingoan egoera jasanezina zen. Lurretik geroz eta gertuago egiten zuen hegan harek! Horrela hurbiltzen zen bakoitzean haize bolada nabari zen. Helikoptero bertatik ere gas poteak



botatzen zituzten, gehienak etxeetako teilatuetan geratzen ziren arren.

Era honetan arratsaldeko hiru eta erdietan hasi ziren istiluak iluntzeko zazpiak arte luzatu ziren. Aldi berean sei eta erdietarako BoROCKa gaua izenpean prestatua zegoen Su Ta Garren kontzertua hasi zen.

Kuriosoa zen zelan *"...Jo ta ke gogor etsaiari..."* entzuten zen bitartean harriak eta gas poteak zerutik hegan egiten zuten (eta helikopteroa noski). En fin... Asko izan ziren atxilotuak baina bakar batek jarraitzen du egun giltzapetuta. Ea ba, erreportai hau argitaratu orduko jada kalean den!

*Begoñako Andra Mariaren koronazioaren inguruan hainbat kantu sortu eta argitara emon ziran Ama Birjiñaren alde. Euren artean asko eta asko euskeraz. Resurrección María Azkuek ereserki ofiziala osatu eban eta beste egile askok bere, abestiak prestatu eta inprentara eroan ebezen. Geuk apur bat arakatuta Azkuek gain, aita Jose A. Arana jesuitaren eta Bonifazio Latsaren olerkiak topatu doguz, besteak beste.*

# Begoña eta Euskerea

I. Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

## KANTU KANTARI

Uzta hartako lehenengo kanta hau, Arístides Artiñanok berak eskribatu ebanaren arabera, Durangotik eta Arratititik Begoña-

ko eleizaraino heldutako erromesek abestu eben. Norena zan, oster, ez euskun argitu. Hona hemen kantua:

### AMA BIRGIÑA BEGOÑAKUA

#### KANTAURREA

*Andra Mariya Begoñakua  
Euskal Herriko gloriya  
Zure hegapean hartu egizu  
Euskaldun jente guztiya.*

#### KANTARTEA

*Zeru altzuan Goiaingeruak,  
Koroe eder bat dabe landu,  
Manto urdin bat, zidar ta perlaz,  
Orfinko urrez apaindu;  
Ama Donzella Begoñakuari  
Ule albiñak orraztu,  
Aro ederraz nahi dabelako  
Aita Eternuak arotu.*

*Ama donzella Begoñakua  
Jarririk aurki eregiyan,  
Adu onekua izango zara  
Agorrilaren zortziyan;  
Ez da negarrik, ez zizpururik*

*Izango Artango mendiyan  
Koroe ederraz zarielako  
Jantziko Euskal Herriyan.*

*Egun horretan dozuz eukiko  
Goiaingeruak albuan,  
Kantu ederrak zuri kantetan  
Os patzu arpa soinuan;  
Guk bere orduan kantauko dogu  
Jarririk euren ondoan,  
Eta Begoña bihurtuko da  
Zuru estitzu abauzkuan.*

*Urra! Mariya diño Bizkaiak  
Urra! Donzellen loria,  
Urra! Padurak, ibar zelaiak,  
Urra! Lurraren jaubia,  
Urra! Gainezka zagozalako,  
Zeruko doez betia;  
Gaurtik aurrera izan dedila  
Bizkai guztia zuria.*

### AGURRA

*Agur zeru lurraren  
Erregin, maitia,  
Jakoben izar barri,  
Dabiden torria  
Sortua orban barik  
Graziyaz betia;  
Zu munduko osasun  
Bake emolia,  
Zu euskaldun guztien  
Ama ongilia.*

*Agur, agur, Mariya  
Zeruko atia,  
Egusentiko izar  
Bizitza guria;  
Samin da Begoñatik  
Alde egitia;  
Gure gurariya da  
Zugaz egotia;  
Emen izten deutzuguz  
Biyotz ta animia.*

**Eta honako hau da Resurrección María de Azkuek paratutako ereserki ofizialaren letra:**

**Begoñako Andra Mariari bere buruntzialdian**

**I.**  
*latsi zaitzeze or goitik gugana  
Ederto apaiñik aingeruak;  
Geutar egiñik, Mariarentzat  
Alkartu daiguzan oiua.*

*Nok ustu deusue gaur zerua?  
Zeiñek zerutu deusku lurra?  
Zeu zauguz zerutzaila, Maria:  
Zeuretzat gure esker agurra.*

*Eztau lurtarrek Bizkaian artu  
Aginpeneko buruntzia.  
«Erregiña beti izan daigula  
Begoñako Andra María».*

*Iñoz biotz-lurrun loigarririk  
Gugandik orra baleioa,  
Egapean garbi gordezue  
Guk opariko doetsoa.*



### II.

*Maria Gure Ama,  
Andra ta Erregiña,  
Ai beti geure artean  
Egon al baziña!*

*Luzaro zaukez goian  
Zerua edertuten;  
Goian bego irudia,  
Zagoz zeurori emen.*

*Gora bear badozu  
Laztan orrek igo,  
Gora gure biotza,  
Gorputza emen bego.*

### III.

*Aingeru lagun kirmen zintzoak  
Gure malkoen giltzedunak,  
Udarik uda elaeak legez  
Zeru lurretan zabiltzanak:  
Egun au egun ilen artetik  
Egaz beioa zeuen aldran,  
Gure eguzkia itzaldtu ezkeru  
Zeuen eguzkia dakusan.*

*Urrezko itzakaz ezarrizue  
Zeruan Begoñan izena,  
Beren aurrean makurtu deien  
Serafinak buru lerdena.*

*Gaurko egunaren urrezko ogean  
Etzun daiñean eguzkia,  
Goi ta beatarrok goretsi daigun  
Begoñako Andra Maria.*



AURTENGO BEGOÑAKO AMA BIRJINAREN  
ERROMERIAN JENDEA UGARI, UMEAK  
PROTAGONISTA ETA EURIA SOBRAN

## ERROMERIAN BLAI-BLAI

*Bizkaiko Zaindari den Begoñako Andramariren eguna, gure artean oraindik ere eztabaidagarri dugu. Bizkaitar askorentzat abuztuaren hamabosta ospatu beharreko eguna litzateke baina aldiz, urriaren hamaika da ospatu beharreko data zuzena.*

### Iratxe Ruiz

Urtero legez, Begoñako Amatxuren eguna zelanbait gorai-patzeko erromeria ospatzen da. Begoñako Anaitasun erakundea antolatzaile nagusia da eta aurten umeak hautatu dituzte pertsonai nabarmentzat. Aurtengo leloa "Ama Birjinari oparia" izan da. Hau dela eta hurbiltzen ziren umeek beraien emaria eskaini zioten Amari. Bizkaia osoko ikastola eta ikastetxek umeak bertaratzeko eskaria jaso zuten, bertan irudi, gutun edo antzerakoak Amatxuri emateko.



Aldez aurretik pentsatuta zeukatzen ordutegi osoa hankaz gora geratu zen, egun osoan zehar basilikaren ingurua zein Mahatserrri osoa euriz ito zuten hodeien ondorio gisa. Erromeriaren hasiera goizeko hamar ta erdietarako zegoen antolatuta eta ordurako eliza aurreko plazan bazeuden saltzai-

**Goiko argazkian:**  
Manu Legina trikitilari mahatsorria bertan egon zen giroa alaitzen.

*Hamar mila zapi more banatu zituzten antolatzaileek. Azken urteotan hasi da atzera be erromeria hau egiten*



leen postutxoak ezarrita. Umeentzako panpina, puzgari eta jolasak iragarrita bazeuden ere, euri zaparrada zela eta bertan behera geratu ziren. Gaztetxoak hurbildu ziren nahiz eta euria zerion. Erroskilak, gozokiak,

Begoñako Amaren argazki eta oroigarriak eta talo zein txorizo saltzaileak bertaratu ziren, hori bai aterpe on bat aurretik jarrita.

Buruhandiak, erraldoiak eta musika banda eguna alaitzeaz arduratu ziren. Arratsaldeko partean, seietan zehazki, herri kirolak izan ziren eta beranduxeago euskal dantzen emaldia leku berebean, hori bai.

### ARRIAGATIK GORA

Zortzietan eguneko ikuskizunik eta garrantzitsuena izan zen. Erromeria Arriaga antzokiko plazan bildu zen. Begoñarako igoeraren ordua zen; Alde Zaharra, Mallona eta Begoñako Ama Birjina kalean barrena, Juan XXIII plazaraino. Behin enparantzan, Bilboko apezpiku eta agintek erromeriako saltsarekin egingo zuten bat. Ordutik eta gabeko hamaiketaraino trikitilarien musikaz gozatzeko beta izan genuen.

Egun osoan zehar 10.000 bat zapi more banatu zituzten hurbiltzen zirenen artean. (Zegoen egunarekin etxetik ateratzeak ere merezi baitzuen!). Ohitura hau 1997tik aurrera darrai.

Usadioekin jarraituz baina oraingo honetan usadio goxo batekin: aspaldiko erromerietan, gaztetxoei txokolate zati bat ematen zitzairen eta ohiturarekin ez amaitzeko 1998tik gaurregunera hamar mila txokolatina inguru banatzen dira, ume eta hain ume ez direnentzat.

Beraz, erromeriara gerturatu bazinen, nahiz eta etxera blai-blai eginda bueltatu gutxienez zapia lepoan eta tripa beteta izango zen, ezta?



# OTXARKOAGA DUINTZEKO TRESNA FAMILI ELKARTEAK HOGETAMAR URTE BETE DITU JARDUNEAN

*Mahatserrian badugu Bilboko famili elkarten aitzindaritzaren daraman taldea, Otxarkoagako Famili Elkarte (AFO). Jadanik 32 urte dituen elkarte honek hainbat borrokari eutsi dio bere hasierako urteetatik gaurdaino.*



Testoa: Arrate Diez

Otxarkoagako Famili Elkarte auzoko egoneza eta beharizanei erantzuteko asmotan sortu zen 1968an. Elkartearen abiapuntua Otxarkoagari dagozkion gai sozialak lantzea da. Dauden arazoak konpontzeko euren eskura dituzten soluzio-bideak eramaten dituzte aurrera. Hala, urbanizazio arazoak konpondu, lokalen eskasiari aurre egin, ingurugiroari buruzko gaiak landu, kirol ekipamendu berriak eskatu, ... honelakoak dira, besteak beste, Otxarkoagako auzokideen kezka nagusiak. AFOkoak Otxarkoagako auzo-etxeko lokal batean biltzen dira. Elkarte bertako auzoetako osaturik dago. Eurak dira, kuota sinboliko baten bidez, finantziarioz arduratzen direnak. Horri esker, famili elkarteak txostenak, aldizkariak eta prentsa

oharrak kaleratzen ditu, auzoko biztanle guztiek arazoaren jakinaren gainean egon daitezten. **LEHEN URRATSAK** Otxarkoagako auzoa osatzen duten lau mila etxeetatik hiru mila eta zazpiehun Madrileko Herri-lanen ministeriokoek -MOPUkoek- eraiki zituzten hamazortzi hilabetetan. Eraikitze arin honek berehalako arazoak sortu zituen: hala, teiatuak, hezetasun arazoak, lorategi falta, ... Ordu-rako AFO elkarte sortu berria zen eta arazo horiei guztiei aurre egiteari ekin zion. 1979-80 bitartean mobilizazioak egin zituzten MOPUK auzoa berreraiki zezan. Auzoen jardunari esker MOPUK etxeetako fatxadak eta teilatuak konpondu zituen. Hala ere, hori lortzeko

**Auzoaren eraikitze azkarraren ondorioei aurre egin die AFOk**

bost urtez aritu ziren borrokan Otxarkoagan.

## URBANIZAZIO BERRANTOLAKETA

Bestelako borroken artean auzoaren berrantolaketa eskatzen dihardute AFOkoek. Hau da, auzo guztia konpontzea. Besteak beste, eskailera eta harresi arkitektonikoak, aparkalekuak, kaleak, instalazio elektrikoak, ... gune batzuk txarto eraikitakoak dira eta handik ibili ere ezin da egin.

AFOkoek diotenez, «1990an zonalde txikiak urbanizatzen hasi ziren baina hamar urteotan %23a besterik ez dute egin, leku batzutan oraindik egoera jasanezina izanik. Beraz, mozio bat sartu genuen Udalean eta honela lortu dugu beste lau urtetan dena eginda egotea, 2004rako hain zuzen».



**«Bariantearena adar jotze itzela izan da».**

### AZKENIK AUZOA KONPONDUKO DUTE !!!

#### MOZIOA BARRUTIAK ONARTU ZUEN

Pasa den otsailaren 24ko asanblada jendetsuan azaldu genizue, gure Auzoko URBANIZAZIOAREN egoera larria ikusiz gero, A.F.O.k Udalaren plenoetako batean mozio bat aurkeztea erabaki zuen, gure auzokideen errebindikazio historikoak. Mozio hau gure Elkarteak dituen 32 urte horien fruitu eta ahaleginaren ondorioa da, baina auzokide guztien eguneroko ekarpen eta ardurara baita ere.

Hala ere, Udalaren buruk Otxarkoaga-Txurdinaga Barrutira Mozioa eramatea erabaki zuten, denbora irabazteko modukoaz.

Joan den martxoaren 27ko batzarrean asuntua debatitu zen eta emaitza honako hau izan zen: P.S.O.E.k, P.P.k, I.C.V.k eta E.H.k onartu zutela baietaren botoa bidez. P.N.V. aldiz, abstenitu egin zen.

#### AUZOAREN ZATZAK LORPEN HISTORIKO BAT

Hala da, Barrutian gertatutako emaitzarekin, ia segurutzat eman dezakegu Bilboko plenoan suertatutako dena. Honekin batera, Auzo osoan ERABAT ETA ARINEKO URBANIZAZIOA bermatuta daukagu.

Azkenik, amaitu ahal izango da Auzoaren Berrikuntza. Otxarkoaga inauguratu zen egunean hasi egin zena, nahiz eta BIRMOLDAKETARI 1989an martxoan jarri zioten.

#### 3 URTEKO OBRAK

Epe horretan auzoa konponduko da, eta azkenean, kale berriak, gune berdeak, aparkalekuak, kirola egiteko lekuak, eskilera eta espalo ondo eginak, ... izango ditugu. Auzokide askori kalte egiten dion eragozpen arkitektonikoak desagertuko dira. Modu honetan, bizitza kalitatea guztiz gehituko da auzoko gizon eta emakume guztiontzat. Honekin batera, Otxarkoagako errealitate soziala asko hobetuko da.

#### AUZOKIDE, BORROKARI EUTSI ORAINDIK

Guztiz haur burutu ahal izateko indar oro behar dugu. Plenoaren data jakin bezain laster Asanblada batera konbokatuko zaitugu. Xehetasun guztiak ezagutuko dituzue eta daukazuen zalantzak argitzeko saiatuko gara.

Ekimen honek guztion bultzada behar du.

Asanbladara etorri izan ez bazinen, orain buletin honen barruan irakurri ahal izango duzu.



OTXARKOAGAKO FAMILI ELKARTEA

### OTXARKOAGAKO BARIANTEA

Bariante berriaren gaiari dagokionez, bost urtetako borrokaren ondoren auzia Auzitegi Gorenean dago. Otxarkoagako auzoek irabazteko berme guztiak dituztelakoan daude AFOkoak. Arazoa hemendik urte askotara konponduko dela uste dute, baina honez gero errepide berria eginda eta



### LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan Ke-irteerak eta Ur-hodiak Eraikinetako edozein konponketa

### ANDAMIO BARIK

Telefona: (94) 669 32 79  
Mugikorra: 908- 45 16 22



**Auzoetxea  
konpon  
dezatela  
eskatu dute  
orain**

amaitu egin dituzte”, diote AFOko bozemaileek. Elkarteko kideek ikerketa baten ondorioz honakoa deskubritu zuten: egin beharreko obrek guner berdeak inbaditzen zituztela. “Irregulartasun asko egon da lan hauen atzetik,

autoentzat zabalik dago. AFOkoen esanetan, nahiko adar jotzea izan da bariantearena. Euren iritziz, Diputazioaren arduradunek konpontzeko aukera sortu denean ez dute horrelakorik nahi izan. “Guk lehenengo fase batean mobilizatzeari ekin genion. Ondoren, -azaltzen dute AFOkoek- negoziaketak hasi ziren baina arrakastarik gabe amaitu ziren. Beraz, bide legalari ekin genion proiektuak akatsak zituelako. Besteak beste, ingurugiro aldetik ez zegoen inongo azterketarik”.

babestutako arbolak lurrera bota, ... Momentu honetan proiektua baliorik gabe dago, Auzitegi Gorenak erabakia hartu arte”, gogoratzen dute. Horregaitik ez zen bariantearen inaugurazio ofizialik egin. Bestetik, Otxarkoagako Auzo Etxearen egoera ere oso larria da. Hain larria ze, AFOkoak oso kezkatuta dauden arazo honen aurrean. Izan ere, hamahiru urtez eraikin honi ez zaio ia konponketarik egin. Auzokoek akordioak lortzen ari dira Udalak Auzo Etxea berrizta dezan. Beraz, Otxarkoagako Famili Elkartek arazo guzti hauek konpontzeko tresna gisa jardun du orain artean eta zeregin horretan auzokide guztiei lanean aritzeko gonbitea egiten die.

**Lanbroa**


**MESÓN  
TURETXE**

Santutxuko poteo gunean

**PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!**

**SAAK**

**e  
i  
k  
a  
r  
r  
i  
z  
k  
e  
t  
a**



«Jende askoren aurrean kitarra jotzea da gehien gustatzen zaidana»

**J  
a  
n  
i  
r  
e  
s  
a  
i  
v  
a  
d  
o  
r**

Testoa: Joana Etxebarria.  
Argazkiak: Iñigo Aizkora.

Neska santutxutar honek betidanik izan du gustuko musika munduan aritzea. Gitarra jotzeaz gain kantuar ere konposatzen ditu. Oraindik hogeita bat urte besterik ez du baina horrelako ilusio eta gogoekin lan egiten jarraitzen badu etorkizun polita izan dezake. Bera, momentu hauetan geroz eta arrakasta gehiago duen talde batetan dago, Elektrobikinis, eta laster denboralditxo batez ahazturik eduki zuten taldea berriz ere martxan jarriko dute. Beraz, lanpeturik egongo da Janire baina musika benetan gustuko baduzu merezi duen lana izaten da.





**Berton. Zenbat urterekin hasi zitzaizun musika interesatzen?**

Ba, musika betidanik gustatu zait eta hortaz gain musika ere ikasi dut nahiko txikitatik. Solfeo egin nuen eta horrekin batera instrumentu bat aukeratu behar izan nuen, nire kasuan gitarra. 12-13 urte izango nituen orduntxe.

**Berton: Zein izan zen hurrengo pausua?**

Lehenengo esperimientua institutuan izan zen, 2.mailan nengoenean. Lau neskek osaturiko talde bat sortu genuen eta talde honek Larru Gorritan zuen izena (nik ez nuen izena asmatu, ja, ja!). Dena den, talde honek nahiko gutxi iraun zuen.

**Berton: Esperientzia honen ondoren zer?**

Esperientzia honen ondoren pixkanaka-pixkanaka abestiak egiten hasi nintzen etxean. Ideia hauek, edo sortutako abesti hauek talderen batean probatu nahi nituen eta justu Xanti, nire neba, talde batean zebilen. Orduan, Xanti, lagun bat eta ni, nire abestiak jotzen hasi ginen. Nahiko modu probisionalean ari ginen, denbora pasa-

tzeagatik, baina horrela piskanaka- piskanaka taldea sortu genuen.

Kafe Antzokian jai haundi bat antolatu zen eta auzoko taldeek bertan jotzeko aukera izan zuten eta guk ere gure musika jendearean azaldu ahal izan genuen. Abesti pare bat jo nituen. Hori izan zen, niretzat, taula gainean egon nintzen lehenengo aldia. Institutuko hori... Horrela, taldeari The Rabid Harpy izena jarri genion eta denboraldi batez erdi ahazturik eduki badugu ere aurten berriro bueltatuko gara.

**Berton: Azkenaldi honetan beste proiektu baten ere sarturik ibili zara, ospe handiz gainera. Kontaiguzu zerbait honi buruz.**

Bai, Electrobikinis taldean nago orain dela urte eta hila-bete batzuetatik. Hauek The Rabid Harpy taldean jotzen ikusi ninduten eta beraien taldean parte har nezan eskatu zidaten.

Ni abuztuan sartu nintzen eta abenduan diska grabatu genuen Urdulizeko estudio batean. Ondoren gure abesti bat spot batetarako aukeratua izan zen eta horrek jende gehiagok gure taldearen berri izatea posible egin

zuen.

**Berton: Horrela ba, leku askotatik ibiliko zinen. Nondik?**

Leku askotan egon gara bai adibidez, Bartzelona, Madril, Vigo, La Coruña, Orense eta abar. Leku bakoitza desberdina da baina orokorrean oso gustura ibili gara eta esperientzia ahaztezina izan da.

**Berton: Bideoklip bat ere grabatu zenuten, zer moduz?**

Nahiko neketsua izan zen, gabean grabatu genuen autobus batean. Autobusa martxan zegoen Plentzia ingurutik. Benetan, zoratzeko modukoa izan zen!

**Berton: Telebistako programa desberdinetan egon zarete ezta?**

Bai, nahikotan egon gara. Normalean abesti bat edo bi izaten direnean Playback izaten da. Oso barregarria da zeren eta gainera beti gertatzen zaigu zoezer, zerbait jauzi, apurtu... Baina hala ere, guk aurrera jarraitzen dugu ezer gertatuko ez balitz bezela. Birritan jauzi zaigu bateriaren zati bat, imajinatu!

Berton: Gero eta gehiago erabiltzen da ingelesa abestietan. Zuk ere ingelesa erabiltzen duzu, zergatik?

Niri ingelesa asko gustatzen zait. Ez dakit zergatik baina gustatzen zait eta gainera

entzuten dudana musika gehiena ingelesez izaten da. Bueno eta igual ohitura txarra da musika estilo bat hizkuntza jakin batetan egin behar dela pentsatzea.

Euskaraz pare bat kantu egin nituen eta jo nituen baita. Niri pertsonalki ingelesa asko gustatzen zait baina ez dakit beste taldeek zergatik aukeratuko duten hizkuntza hau.

**Berton: Zer duzu gogokoan kantuak konposatzea edo eskenatoki baten gainean gitarra jotzea?**

Biak ditut gogoko. Beharbada, eskenatoki gainean eta jende askoren aurrean gehien gustatzen zaidana da, pilo bat disfrutatzen dut. Dena den, oso interesgarria da baita ere abestiak egitea, gauzak irteten zaizkizunean ondo sentitzen naiz.

**Berton: Zuk, ze musika estilo duzu gogoko?**

Niri, denetarik entzutea gustatzen zait baina musika egiterrako orduan nahiago izaten dut

rocka. Denetarik entzutea oso aberasgarria dela iruditzen zait, lasaia, ez hain lasaia ...

**Berton: Familian musikarekiko zaletasunik ba al dago?**

Nire neba ni baino arinago hasi zen gitarra jotzen eta gero talde batetan hasi zen. Nire ahizpa zaharrak musika ikasi zuen eta gazteak ere, gainera azken honek flauta jotzen daki eta gitarra ere.


Ah! Eta nire amak koro batetan abesten du. Aita izan ezik denok ibili gara musikarekin zerikusia duen zerbaitekin.


**Berton: Nola ikusten duzu auzoa musikari dagokionez, nola dabil talde eta lokalen kontu hori?**

Taldee buruz egia esan ez dakit gauza haundirik; izan ere azken aldi hontan ez naiz hemendik askotan ibili. Baina lokalei dagokionez ez dago aukera haundirik. Bilbon orokorrean lokalak nahiko garestiak izaten dira eta ez dago asko. Nik, Deustuan eta Zabalburun entsaiatzen dut.

**Berton: Zu momentu hauetan ikasten ari zara, zelan antolatzen zara ikasi eta musikan aritzeko?**

Atzerritar hizkuntzako majisteritzako azken urtea egiten





**Berton: Zer da gutxien gustatzen zaizuna musika munduan aritzeaz?**

Adibidez kanpora joatea batzutan nahiko neketsua da, baina ez da kexatzeko modukoa, mundu guztia dago hori egiteko desiatzen.

Berton: Bukatzeko, etorkizunera begira noraino gustatuko litzaizuke ailegatzea?

Ba, musikari batek gehien desio duena musikaz bizitzea da, hori baino hobea ez dago. Baina oso, oso ospetsua ez bazara hau nahiko zaila da.

Elkarrizketa amaitu aurretik bota dezagun bitxi hau: Janirek kontatu zigun berak 12-13 urterekin pianoa jo nahi zuela baina hau oso handia zenez eta etxean asko okupatuko zuenez gitarra oparitu ziotela.

**GALDERA LABURRAK**

**Talde bat:** Ezin dut bat bakarrik aukeratu.

**Abesti bat:** "Andres".

**Liburu bat:** "El Alquimista".

**Amets bat:** Musikaz bizitzea.

**Pertsona batetan gehien gustatzen zaizuna:**

Pasioduna izatea, emozioduna.

**Eta gutxien:** Norbera ez izatea.

**Asteburuko plan bat:** Nonbait jotzea.

**Mendia edo itsasoa:** Itsasoa.

**Lasaitasuna edo martxa:** Martxa

**Hiria edo herria:** Hiria

ari naiz. Majisteritza ez da oso zaila eta azken urtean talde batekin bakarrik ibili naizenez ez zait zaila egin bi gauzak antolatzea. Dena den, abestiak egiten jarraitu dut eta orain berriz hasiko naizenez The Rabid Harpy taldearekin, ikusi beharko da bi talderekin zelan moldatzen naizen.

**Bazkide txartela**

Izen deiturak: \_\_\_\_\_ ENA zenbakia: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_ Posta kodea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Lanbidea: \_\_\_\_\_ Jaioteguna: \_\_\_\_\_

Partehartze mota:  Bazkide soila  Ekintza jakinetan laguntzaile  Lanfaldeko partaidea

Ordainketa:  Kontu korrante bidez  Asapalaren kontuan

Kuota korrante bidez  500 pta  1000 pta  2000 pta  pta

3035 0071 6 071 105864 2

**ASAPALA KULTUR ELKARTEA**  
Iturriaga 55 1 Ezkerria 48004 Bilbo  
Telefonoa: 94 4735448  
E-posta: asapala@euskalnet.net

# Zer eragin du zuretzat gasolinaren prezioaren igoerak?

**GUIOMAR (BOLUETA)**  
Ezebez. Ez daukat kotxerik.



**SERGIO (SANTUTXU)**  
Nahikoa. Justu orain erosi dut autoa eta pixka bat haserre banago. Behintzat ez dut askotan erabiltzen.




**TRINI (SANTUTXU)**  
Altu dago prezioa. Merkatu deieila. Orain 5.000 pezetagaz ezin dozu bete. Zaharrentzat merkatu ze zeuk gaztiak oraindik ajil zaozie

**TXOMIN (TXURDINAGA)**  
Oso gutxi. Astean behin baino ez dut kotxea hartzen eta bide laburra egiteko da.




**ELENA (TXURDINAGA)**  
Oso txarto iruditzen zait. Ez dakit arazoa zein den, bakarrik ondorioak.



**ARKAITZ (SANTUTXU)**  
Niretzako ezebez, ez dekot autorik. Nire aitarik ez dio graziaz egiten.



**JUAN LUIS (SANTUTXU)**  
Kotxea gitxi erabiltzen dut baina prezioaren igoerak dena garestitzen da.



**ARATZ (SANTUTXU)**  
Niretzako ezebez. Oraindik ez dut karneta atera, baina ikasten nago.



# MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## SOLOKOETXEKO AUZOEK PARKEA LORTU DUTE AZKENEAN

Udalak Maternidad zaharreko lorategiak egokitu ditu harresiak kendu ostean

Hainbat urtetako eskari eta jardunak ez dira alperrik izan. Solokoetxe-ko auzoek badaukate parke txukun bat eskura. Urriaren 17an Bilboko alkate Iñaki Azkunak, bertako egokitze lanak behin amaituta, Maternidad zaharreko lorategiak zabaldu zituen ofizialki. Geroztik, inguruko herritar guztiek 5.200 metro karratuko eremu berde honetaz gozatu ahal dute.

Azken urteotan Solo-



koetxe-ko auzoek behin eta berriz aldarrikatu dute udal arduradunen aurrean Maternidad zaharreko lorategien inguruko harresia lurrera bota eta barrukoa behar bezala txukun zezaten. Esparru berde gutxiko alderdi honetan bazegoela, auzoen ustetan, parke bat atontzeko modu errez eta merkea artean atea zarratuta zetzan eremu hori herritar guztientzat zabalduaz. Eskatu ez eze lortu ere egin zuten lortu udal arduradunen konpromisoa eta, orain, hitzak ekintza bihurtzeko garaia ailega da. Lehengo urriaren 17an alkateak ofizialki inauguratu zuen Maternidad zaharreko lorategia behin egokitzen eta urbanizazio lanak amaituta. Parkeak 5.200 metro karratuko zabalera dauka. Erdia (2.400 metro karratu) lorategi eta belardietarako gordeta badago ere, pasealeku eta egoteko tokiak be hainbat dira (2.200 metro karratu). Eta ezin ahaztu umeentzat joko bazter bat atondu

bertin

Mahatsberriak




**5.200 metro karratuko eremu berde honetaz gozatu ahal dute**

kaleekiko loturak hobetu dituzte: Sorkunde, Fika eta Zumarraga kaleak eta Garamendi etxe-multzoa. Azken honetan zimentuzko harresia altzatu dute Maternidad zaharreko lorategien eta Garamendiko garajeen arteko

dela, baita saskibaloizelai bat ere.

Guztira obrak hamar hilabetez luzatu dira eta 108 pezetako gastua eskatu du. Egindako lanak dira, batetik, eremu osoaren errekupezioa, gero eta hondatuago baitzegoen alderdi hau. Auzoek sarritan salatu arren, bazter batzuk zarama biltegiak bihurtuak ziren, esate baterako. Bestetik, inguru osoa urbanizatu eta ondoko

zuloa estaltzeko. Ondorioz, eremu berdea zabaltzeaz gain Fika kaletik sarbidea sortu dute. Egindako lanek argi eta saneamendu sare berria ekarri dute. Gainera, ume-jokoen bazterren zein saski-baloizelaiaren inguruan hamalau zuhaitz imini dituzte. Beste arbola bi, gainera, tokiz aldatu dituzte, obrak lurrera botako zituelako bestela.



# ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: [asapala@eusnet.org](mailto:asapala@eusnet.org)

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K




## URIBARRI ETA MATIKOKO JAIK EURITAN

Herritarren parte hartzea ez da espero bezalako izan

Itxaso Perez

Uribarri eta Matikoko jendea batu da aurten jaiak handiagoak egitekotan. Iragan urtean jaien erdigunea aldatu zuten, Uribarri kaletik jaisten Uribarriko eskoletako plazara eramanez, horrela Matikotik eta orokorrean auzoko leku guztietatik hurbilago egoteko, eta jendearentzat erakarriagoak egiteko. Hainbat taldek osatzen dute bertako Jai Batzordea, besteak beste Matikoko Kultur Elkarte, Ekintza Dantza Taldea, Haika, Uribarriko Kultur Elkarte, Ziri-ka, Galtzagorri,



egotzi diote, eta hurrengorako bide berriak probatu egin beharko luketela uste dute.

Baita ere datorren urtean Ama Birjinarengana edota Gorbeiaiko Artzainarengana jo beharko dute lehena-ego eguraldia ziurtatzen, zeren bigarren asteburuan batez ere ez zuen batere lagundu. Batek baino gehiagok igeritan ikasi omen zuen hala beharrez...

Aurretik lehiaketak aipatu ditut, eta hauek izan dira jende gehien erakarriak. Eta hauen artean, bigarren urtez ospatu



## KULTUR ERROTAK EZ DU ETENIK

TOPAGUNEKO EUSKARA ELKARTEEN PROGRAMAZIOA AURRERA DOA

Maiatzetik hona 50tik gora kultur ekitaldi antolatu dute Topaguneko euskara elkarteek. Urtea agortu bitartean beste 100en bat burutzeko asmoa dute. Honeixek Kultur Errotak aurten ekarriko dituen zenbakiak. Baina kopuruaren gainera Euskal Herriko bazter askotara eramandako formato txikiko kultur emanaldiak direla nabarmendu behar da. Artista kontsaktuak ez eze -Amaia Zubiria, Anje Duhalde, Koldo Amestoy...- sortzaile berriak ere plaza bat euki dute euren buruak eta euren lanak ezagutzera eman ahal izateko. Mikel Telleria, Arima Beltza, eta beste hainbat kultur gile bazterrik bazter ibili dira Kultur Errotaren barruan.

Gurean Asapala kultur elkarteak hartu du Kultur Errotaren ardura. Orain artean Ander Lipus antzezlea -"Ardoaz" lanarekin-, Xabier Amuriza bertsolaria -"Lazkao Txikiren antologia"- eta Bidaia -"Mixel Ducau eta Caroline Phillips abeslariak- ekarri ditu mahatsorrien aurrera. Azaroaren amaieran Petti "euskal yarragh"aren ordua izango da. Asapalakoak lanean ari dira



abenduan be beste ekitaldiren bat egiteko asmoz.

### UME JAIK AZAROAREN 18AN AISIALDI TALDE EUSKALDUN BERRIAREN AURKEZPEN GISA

Datorren azaroaren 18an Santutxuko Karmelo plazan umeentzako jai batekin aurkeztuko du bere burua Asapala Euskara Elkartearen eskutik datorren aisialdi talde euskaldun berriak. Arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera jokoak eta antzerkiak gozatzeko parada eukiko dute gaztetxo guztiek.

Arratsaldeko lau eta erdietan mota guztietako jokoak hasiko dira: zaku lasterketak, txokor bilketa, urunearen jokoak,

Irungo Hiria poesia lan saridunak maitasuna eta gure herriko egoera politikoa nahasten ditu. Urtzi Urrutikoetxeak berak esan legez, "inguratzen nauten irudiak, gertakariak eta gauzak argazki edo flash modura hartu ditut: Bilboko kaleak, eguraldia, maitasuna...". Guztira, azken hiru urteotan idatzitako olerkiak biltzen ditu oraingo bilduma honek.

"Utzidazu karmina kentzen" lanaren balioak aipatzerakoan Lourdes Otaegik egilearen ahotsa pertsonala azpimarratu zuen. "Maitasun istorio bat dakar, baina inguru sozial eta politikoan erreparatuz", azaldu zuen epaimahaikideak.

Urtzi Urrutikoetxea aurretik bestelako poesia sariak irabazita dago eta badu kalean liburu bat, "Borroka galduetatik gatz" izenekoa,

# MIKOLETA LEHIAKETAN MAHATSORRIAK NAGUSI

HAMAR SARITUETATIK SEI GURE INGURUKO IKASTOLETAKO IKASLEAK DIRA



Argazkia: Josu Etxebarrioste

**Bilboko Udalak antolatu Rafael Mikoleta ipuin lehiaketaren hamabigarren edizioak ikasle mahatsorriak euki ditu protagonista nagusi. Azken urteotako joerari eutsita, sari gehientsuenak gure inguruko ikastoletako umeen artean banatu ditu aurtengo epai mahaiak.**

Urtero urtero Bilboko Udalak ume eta gazte euskaldunen artean ipuin lehiaketa eratu izaten du. Gaztetxoeren erantzuna ez da makala, aurtengo datuak ikusita behinik behin. Guztira, 752 izan dira aurkeztu eta onartutako ipuinak. Bilboko eskola gehienek bialdu dituzte euren ikasleen idazlanak.

Bost atal ditu lehiaketa honek, ume eta gazteen adinaren arabera. Lehen hezkuntzako 3-4 eta 5-6 batetik. Derrigorrezko bigarren hezkuntza bestetik. Eta, azkenik, Batxilergoa, UBI eta Lanbide Heziketa. Epaimahaia Xabier Gereño, Benito Otazua, Luigi Anselmi, Juan Ramón Mada-

riaga, Asier Astigarraga, Pedro Alberdi eta Jose Luis Sabas kultura zinegotziaz osatu da.

## TXAPELA BEGOÑAZPIRA

Nagusien atalean -Batxilergoa, UBI eta Lanbide Heziketa-Begoñazpi ikastolako Ainara Larrabide Barrios atera da irabazle, "Ilunari begira" deritzon ipuinari esker. Ainara da, beraz, aurtengo lehiaketako saridun beteranoena.

Txikienean sailean be txapela mahatsorri baten burura etorri da. Lehen hezkuntzako 3. eta 4. Mailako ikasleen artean Txurdinagako eskolako Mikel Rodríguez Atxak irabazi du. Bere lanaren izenburua "San Mameseko mamua" da. Gainerako atal biotan Arangoitiko eskolara eta Deustuako Ellakuria institutura joan dira sari nagusiak. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. Mailako ikasleen artean onena Sara García Valle arangoitiarraren "Zoriontsu jauna" izendatu dute. Derrigorrezko bigarren hezkuntzan, oster, Iratxe Fernandez Anton atera da garaile bere "Istorio oroigarria" ipuinagaz.

Lehenengo sarietaz gain, bigarren eta hirugarren postuetan gelditu dira ikasle mahatsorri batzuen idazlanak. Begoñazpiko Iratxe Begoña, Karmelo ikastolako Irati Agirre eta Laia Becerra eta Gabriel Arestiko Enara San Juan, besteak beste.

## RAFAEL MIKOLETA NOR ZEN

Mikoleta lehiaketak bere hamabigarren edizioa bete du aurton. Baina nor ote zen Mikoleta hori? Nondik dator izen hori? Rafael Mikoleta Bilbon jaio zen 1611an. Famili boteretsu baten seme, lizentziatu, doktore eta epaile lanetan be ibili ei zen. Abadetu eta Bilboko kabildo eklesiastikoko buru izatera iritsi zen.

Baina hori guztia ez da arrazoia lehiaketaren izena berea izan dadin. Rafael Mikoleta, guk dakigula, Bilbok eman duen lehenengo euskal idazlea izan zen. *1653ean Modo breve de aprender la lengua vizcaina* idatzi zuen eta. Liburuxka hau euskararen gramatika egiteko lehenengo ahalegintzat jo izan dute adituek. Euskara ikasteko bideetan barrena bertsoak eta solasaldiak sartu zituen Mikoletak bere lantxoan.

Bi bitxikeri. Lehenengoa, Mikoletaren idatzia Ingalaterrara eramane zuten bertako merkatarri batzuek bilbotarrekiko euren harremanetan euskaraz zeozer jakin gura omen zutelako. Bestetik, Mikoletaren lanak gaur egun arte luzatu direla: bere bertsoetako batzuk Marijaiaren abestian isladatu baitzituen Edorta Jimenez idazle mundakarrak. "Goiza ta erlojua ez ei doaz batera, bata ala bestea zoratu egin da" abesten dugunean Mikoletaren bertso zahar horiek suspertzen ditugu.

## OHOREZKO PODIUMA

### A. MAILA. (LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILAK)

- 1. Saria:** "San Mameseko mamua". Mikel Rodríguez Atxa. Txurdinagako eskola. 3. Maila.
- 2. Saria:** "Zapatila magikoa". Iratxe Begoña Boldoba. Begoñazpi ikastola. 4. Maila.
- 3. Saria:** "Tigre potoloa". Jorge Mezquita Fáundez. Juan Delmas-Zamakola eskola. 3. Maila.

**Argitaragarriak:** "Hodei baten istorioa", Leirin Lucea de la Encina. Kirikiño ikastola. 4. Maila. "Munduko zelairik majikoena". Iris Martinez. Juan Delmas-Zamakola eskola. 3. Maila. "Katagorri ausarta eta diamante miragarria". Oier Lobera Ezenarro. Kirikiño ikastola. 4. Maila. "Surik ez zeukan dragoia". Nerea Gonzalez Lopez. La Salle ikastetxea. 3. Maila.

### B. MAILA. (LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILAK)

- 1. Saria:** "Zoriontsu jauna". Sara García Valle. Arangoitiko eskola. 6. Maila.
- 2. Saria:** "Charlyren arazoak". Irati Agirre Olarra. Karmelo ikastola. 5. Maila.
- 3. Saria:** "Zorioneko ahizpa". Laia Becerra Martinez. Karmelo ikastola. 6. Maila.

**Argitaragarriak:** "Ni eta nire katua". Leire Ukar Fernández. Deustuako ikastola. 5. Maila. "Patxi Eulia". Urko Valdivielso Zueco. Ibaigane ikastetxea. 5. maila.

### C. MAILA. (DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA)

- 1. Saria:** "Istorio oroigarria". Iratxe Fernandez Anton. Ellakuria Institutua. 4. Maila.
- 2. Saria:** "Gaurko eguna". Enara San Juan Manso. Gabriel Aresti Institutua. 4. Maila.
- 3. Saria:** "Mutiko arduragabea". Ibai Txurruka Ormaetxea. Ellakuria Institutua. 4. Maila.

### D. MAILA. (BATXILLERGOA, UBI ETA LANBIDE HEZIKETA)

- 1. Saria:** "Ilunari begira". Ainara Larrabide Barrios. Begoñazpi ikastola. 1. Batxillerrekoa.

**DAYTON**  
Reagge-festa  
taberna  
Santutxuko poteo gunean

  
ekilore  
Iturriaga, 92 Santutxu

**BASTERTXU**  
  
TABERNA  
Ricardo Bastida plaza

# berton



## hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_

Sinadura

## MURGA (608 metro)

### Zeberiko Gezalatik


Ugaotik Zeberiora eta herri honetako Ermitabarri auzotik Gezalaraino joan ginen autoz. (A).

Gezalan amaitzen da errepide asfaltatua eta orain oinez jarraituko dugu zuzen pista zabaletik. Pista honetatik 10 minutuz ibili beharko dugu erreka ondotik. Orain erreka ezker aldean dugu. Bera gurutzatuko dugu eta aurrean pista bi aurkituko ditugu. (B)

Eskuineko pista ondoan zementuz egindako bi ur erregistro daude, baina guk hartuko dugun bidea ezkerrekoa da. Pista honetatik ehun metrotar gorantz eta zuhaitz artean baserri zahar baten aztarnak ikus daitezke eskuin aldean. Pista berberetik jarraituz goialdean gurutzbidea aurkituko dugu. Orain eskumaldera jarraituz berrehun metro ibili ondoren lautada faltsu batean, bidebanatze batean agertuko gara. Bertan C.P. hizkiak eta zenbaki bat margoturik daukan mugarri zuri bat dago (C). Bide osoan honelako gehiago ikusiko dugu.


Aipatu mugarritik ezkerreko pista jarraitu beharko dugu, bost minututara eskuinaldera eta beherantz doan pistari jaramonik egin barik eta aurreratxoago eta ezkerretarantz abiatzen den pistarekin topatu arte. Orain pista ezkerretarantz eta gorantz doa Larragoitiburu (541 m.) mendia inguratuz mendi lepora helduko gara. Bertan Foru Aldundiak jarritako kartel bat dago, "Murga" eta "Larragoitiburu" dioena. (D)

Hona heltzeko bide laburra egin daiteke. Horretarako, Arteatik datorren pistara heldu baino lehen gaztainondoak ikusten ditugun tokian zuzen joko dugu leporaino.



Foru Aldundiko kartelaren ondotik pista guztiak utzi eta zuzen joko dugu txartel kutxak ikusi arte, bi baitaude, baita goi erpin bat ere (Murga 608 m.). Guztira ordubete eta hoge minutu.

**IKUSITAKO ZUHAITZAK:**  
 180-300 metro: Pinua, sasiarkazia, urritza, haltza, haritza, lizarra, panpanoa, nekosta.  
 300-600 metro: Pinua, gaztainondoa.



## "JALGI HADI PLAZARA"

HILEKO LEHENENGO LARUNBATEAN EUSKAL DANTZAK IRAKASGAI BILBOKO AREATZAN

*Erdoitza Martinez*

Urritik ekainerarte dantzarekiko harremana estutzeko aukera izango dogu Bilbo inguruko guztiok, bai bertokoak, baita atzerritarrak ere. Denok hurbildu gaitkez hiriko alde garrantzitsuenetarikoa batetara, Arenalera, hain zuzen ere; bertan egongo baitira zenbait dantzari-irakasle gure zain, eurekaz ikasteko eta gozatzeko, noski!

Azkenean, 23 urteetan zehar gogor ibili ostean, Euskal Folklore Elkarteak bere ametsaren gauzatzea ikusteko aukera dauka. Bai, aspalditik eben euren helburuen artean euskal dantzak kalera erotea, kaleko jende guztiengana hurbiltzea. Baina ideia aurrera ateratzea ezta guztiok pentsa daikegun bezain erreza. Alde batetik, diruaren arazoa dago; bestetik... zelakoa izango da jendearen erreakzioa? Buruhauste orok gainditu eta urriaren 7an Arenalean burutu zan lehenengo topagunea, non hainbat dantzazale eta hainbat kurioso hurbildu ziran. Harrera positiboa

izan zan!!! Bai Elkartea, bai Udaletxea -nork ekintza hauek bultzatu dauz- pozik geratu ziran, hurrengo saioa noiz izango dan zain; batez ere, ea jendea berriz ere animatzen dan ikusteko eta larunbatean izandako arrakasta berriz bizitzeko.

Hilabete guztietako lehenengo larunbatetan egingo diren ekintza hauetara jende guztia dago gonbidaturik: gaztetxoak, helduak, dantza munduan jaioak diranak, berriak,... Hots, euskal dantzekaz harremanetan sartu nahi dauan guztiarentzako aproposak dira erromeria hauek; non, batez ere, iparraldeko jauziak-korroan dantzatzen diran dantzak- izango dira irakasgai; inola ere betiko fandangoa eta arin-arina ahaztu barik.

Gainera, giroan bakarrik ez dira dantzariak egongo, albokariak eta txistulariak ere topatzeko aukera izango baitogu, eta zelan ez! Agian bertolariren bat edo, ere aurkituko dogu hortik zehar bere bertsoekaz arratsaldea alaitzeko eta girotzeko prest. Hau da, dantza mundua atxaki legez izanda, euskal-kultura hurbildu nahi deuskue gure kaleetara.

## Batez ere Iparraldeko jauziak irakatsiko dituzte Areatzako dantza eskolan

Euskal dantzak beti izan dira gure herriaren adierazgarri garrantzitsua, hasieran abertzaletasuna indartzeko herritarrak dantzatzera irteten ziralarik kalera. Baina hau guztia apurka-apurka galtzen joan da, eta hainbat urteetan zehar iraundako gar hori amatatzen doa urteak joan ahala. Horrela, gaurko gaztetxoak nahiago dute futbol bezalako kiroletan ibiltzea, jantzi txuria, txapela eta gerrikoagaz kalera irtetea baino. Honekin bukatzeko, eta gure ohiturak indartzeko, bultzatu da "Bilbo Dantzan" ekimena, euskal kultura berpiztea dalarik euren helburu nagusia.

ZURE  
PUBLIZITATEA  
HEMEN  
94 473 54 48



Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

INMOBILIARIA  
**Gelaya**

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92  
Tfnoa: 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo



ARROPA ★  
ZILARRA ☾  
OPARIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU  
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

ZURE  
PUBLIZITATEA  
HEMEN  
94 473 54 48

Biktimganako Laguntza Zerbitzua  
Servicio de Asistencia a la Víctima

*Zeurekin gaude*

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubideen eta Justiziarekiko  
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos  
y Cooperación con la Justicia

# horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Negua ate joka dagoen arren, lasai asko biziko zara beheko suaren ondoan. Beheko surik badakazu, jakina.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Gauza bat da Taurus peto-petoa izatea eta beste bat burugogortasunaren marka guztiak haustea. Bigundu zaitetz, lagun!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Sinesgaitza irudituko zaizu baina bizitzan bada asteburuez gain beste zeozer. Ireki begiok!
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Hain arduratsua izateak izakera mingosten dizu. Bota egiozu gatza eta piperra zeure bizimoduari!
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Nondik atera duzu horrelako ideia zoroa? Ez konta inori, barre egingo dizute eta.
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Udazkeneko orbel gorrixkek zure bihotza laztantzen dute, gainerakoek ikusi ere egiten ez dituzten orbel gorrixka horiexek.
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Eutsi negarrari emateko tentazioari, malkoen beharrik ez duzu eta. Kalean badago zeozer zain eta ez da goardia zibila.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Galarrenaren moduan sartu ohi zara. Zer moduz zeure ospin aurpegi hori zertxobait goxoagotuko bazendu? Horixe. Holan askoz be hobeto.
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Zeu be Garzónen zerrendako erakunderen batean zagoz? Azkar! Egin despedidea adiskidekin, prestatu marradun traje txukuna, esan agur bihotzeko laguna ri eta gastatu zure bonometroaren azken bidaiak. Barruan ikusiko dugu elkar!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Azken urte mordo honetan sexu harremanik euki ez izanak ez zaitu kezkatu behar. Bai ordea bolada txar honen aurretik ere erroskarik jan ez izanak. Animo, eternapromesa!
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Zure bizitza zeharo aldatuko da datozen asteotan. Ea oraingo honetan konturatzen zaren!
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Ez egin jaramonik bazter honetan esaten dugunari. Zu zeuk ondo dakizu den-dena gezur hutsa dela, geuk asmatutakoa... ala ez?

# agenda

**Azaroaren 2:**  
Deustuako Bidarte Auzoetxea.  
Euskal selekzioak. Mahaingurua.  
Arratsaldeko 8etan.

**Azaroaren 3:**  
Kafe Antzokia. Joxe Ripiau  
taldearen despedida kontzertua.

**Azaroaren 4:**  
Euskal Dantzak Areatzan.

**Azaroaren 9:**  
Hitzaldia. "Santutxun Euskaingintza  
indartuz". Sorgintxulon 8etan. EHE.

**Azaroaren 10 arte:**  
Gloria Fuertes erakusketa.  
Bidebarrieta liburutegia.

**Azaroaren 12 arte:**  
Liburu Zahar eta Aukerakoan Azoka.  
Bilboko Areatza.

**Azaroaren 12:**  
Eguzkilorea Mendi Taldearen irtera:  
Gorbea eta Atxulaur.

**Azaroaren 15:**  
Mikel Urdangarin.  
Arriaga antzokian.

**Azaroaren 18:**  
Karmelo plaza. Ume jaia.  
okoak eta antzerkia.  
Arratsaldeko 4,30etan.

**Azaroaren 24:**  
Petti abeslaria. Sorgintxulon.  
Gaueko bederatzietan.

**Azaroaren 25:**  
Ume jaia. Antzinako euskal jokoak.

bert'n-ek

Administrari bat  
behar du

MAHATSERRIKO HERRI ALDIZKARI  
euskaldunaren administrazio  
eta publizitate lanak bere gain  
hartu beharko ditu.

Kontratua egingo zaio.  
Dedikazio partziala eskatzen da.

Interesatuak deitu  
94. 473.54.48  
telefono zenbakira.

bert'n

HILEKO ARGAZKIA



Argazkia: Iñigo Azkona